

Komenentzia eta ultrahurbiltasuna

**EROSKIK FRANKIZIA ERAKO BESTE
SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU "RAPID"
FORMATUAREKIN DONOSTIAN**

- EROSKIren formatu komertzialetan berriena da, oso eredu komertzial lehiakorra. 150 bat metro koadroko dendak dira, eta erosteko erraztasunagatik eta azkartasunagatik nabarmentzen dira
- EROSKI RAPID sareak 40 denda ditu dagoeneko, hiri eremuetan, biztanleria dentsitate handiko eremu turistikoetan eta zerbitzuguneetan kokatuak

Donostia, 2021eko abenduaren 2a.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du RAPID formatuan, Donostiako Legazpi kaleko 3. zenbakian. Denda berriak 120 metro koadro baino gehiagoko salmenta aretoa du, eta zortzi langileko taldea.

EROSKIren RAPID formatuaren ideia da bezeroei komenentziazko formatu ultrahurbila eskaintzea. Oso eredu komertzial lehiakorra da, eta gutxi gorabehera 150 metro koadroko denda txikiek osatzen dute. Nabarmentzekoa da erosteko orduan ematen dituen erraztasuna eta azkartasuna.

Irekiera ordutegi zabala dute, eta kontsumitzaileek 4.500 erreferentzia ere aurkitu ahal dituzte: pisura eros daitekeen elikagai freskoen, fruten eta berduren eskaintza zabala, haragi ontziratua, ogiak eta opilak labe propioan erre berriak eta, horretaz gainera, kafea hartzeko gunea. Gainera, atal bat izango du osasun arloko produktuentzat eta produktu ekologikoentzat. Eta, elikagaietan, edarietan, drogerian eta lurrindegian, berriz, fabrikatzaile liderren markak eta EROSKIrenak berarenak egongo dira.

Laster batean erosteko pentsatua dago denda hau; oro har, etxerakoan edo lanerakoan erosteko edo, gune turistikoetan, eguneko edozein momentutan. Komenentziazko erosketak egiteko "denbora faltan" den jendearentzat diseinatua dago; sarritan, ustekabeko premiak estaltzeko, baina baita eguneroko beharrak betetzeko ere; izan ere, formatu honek erosketa osoa egiteko modua ematen du hala freskoetan nola elikagaietan. Denda honek, gainera, berrikuntza teknologikoak dakartza, eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta ingurumen eragina gutxitzeko. Hau da, hotz eta klimatizazio sistema berriak eta ekipamendu eraginkorrak ditu.

EROSKI RAPID sareak 40 denda ditu dagoeneko, hiri eremuetan, biztanleria dentsitate handiko eremu turistikoetan eta zerbitzuguneetan kokatuak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



"Funtsezkotzat dugu bezeroak momentu oro eta nonahi dituen beharretara egokitzea, eta komenentziazko RAPID ereduak malgutasun hori ematen digu; aldi berean, bere horretan eusten dio EROSKI elikadura osasungarri eta iraunkor bat eskaintzeko konpromisoari. Denda honek erosketa osoa egiteko modua ematen du", esan du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinez Sanzek. Sarea hedatzeko planetan, honako lurralde hauek sartzen dira: Madril, Levanteko kostaldea, Andaluzia, Katalunia, Balear uharteak, EAE, Nafarroa eta Errioxa.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)